

7. FUNTSEZKO BALIABIDEAK

Oinarrizko baliabideak

Atal honetan, GeoSegur egitasmoa martxan jartzeko eta mantentzeko behar ditugun baliabide nagusiak azaltzen ditugu. Baliabideak giza, material, teknologiko eta ekonomikoak bezala antolatu ditugu, CANVAS ikuspegiarekin lerrokatuta.

Giza baliabideak

- Ingeniari edo teknikari bat, GPS sistemaren funtzionamendua eta mugikor-aplikazioaren garapena diseinatu eta mantentzeko. (Lehenengo fasean derrigorrezkoa)
- Diseinatzaile bat, pegatinaren itxura eta marka lantzeko, bezeroek produktuari konfiantza izan dezaten.
- Marketing arduraduna, GeoSegur promozionatzeko eta sare sozialetan bezeroekin konfiantza sortzeko.
- Administrazio eta salmentako langile bat, ekoizpenaren eta salmenten kudeaketa egiteko.

Baliabide materialak

- Ekoizpen-lokala edo tailer txiki bat, pegatinak muntatzeko eta proba egiteko.
- Ordenagailuak eta softwareak, diseinua, datu-kudeaketa eta garapena egiteko.
- GPS txipak, bateriak eta pegatina materialak (plastiko edo silikona), produkzioaren oinarria.
- Pakete eta bidalketa materiala, produktuak bezeroarengana seguru iristeko.

(Lehenengo fasean lokala, txipak eta bateriak derrigorrezkoak; pakete materiala bigarren mailakoa hasieran, eskariaren arabera handitu daiteke.)

Baliabide teknologikoak

- GeoSegur mugikor-aplikazioa, objektuak GPS bidez denbora errealean kokatzeko.

- Datu-basea, bezeroen eta objektuen jarraipena egiteko eta aplikazioaren funtzionamendu seguruari eusteko.
- Sare sozialak, bezeroengana iristeko eta produktuaren balio-proposamena ezagutarazteko: "galtze edo lapurreta arriskua gutxitzeko konponbidea".

(Aplikazioa eta datu-basea lehenengo fasean derrigorrezkoak; sare sozialak bigarren mailakoak hasieran, marketin planaren arabera.)

Baliabide ekonomikoak

KAPITALA

- Mugikor-aplikazioaren harpidetza bidezko irabaziak.
- Lehen salmentetatik lortutako dirua berrinbertitzea.

DIRULAGUNTZAK

- Eusko Jaurlaritzaren, Foru Aldundien eta udalen ekintzailatza eta berrikuntza dirulaguntzak.

MAILEGUA (bankua)

- Mikro-mailegua bankuetatik, hasierako gastuak estaltzeko.

Laburbilduz

- Baliabide kritikoenak: Ingeniari/teknikari bat, GeoSegur mugikor-aplikazioa, GPS txipak.
- Lehenengo fasean derrigorrezkoak: Baliabide teknologiko nagusiak, langile nagusiak, ekoizpen material nagusiak.
- Bigarren mailakoak: Marketing sare sozialak, pakete materiala, dirulaguntza osagarriak.